



## ARGAZKI LEHIAKETA SOZIALA

### JOSE ALONSO LABRAREN Oroimenez 2020

Donostiako **CLUB VASCO DE CAMPING ELKARTEAK** antolatuta, aukeratutako argazki digitalen proiektio emanaldia izango da, une egokian iragarriko diren egun eta ordutegian.

Parte-hartze oinarriak hauek dira:

1. Elkarteko bazkideak diren guztiek parte hartu ahal izango dute.
2. Gaia **MENDIA** izango da, bere alderdi eta ikuspegi guztietan (mendizaletasuna, txangozaletasuna, alpinismoa, eskia, espeleologia, eskalada, natura, paisaia, humanitateak, ohiturak, ingurumena, salaketak ... eta abar).
3. Partehartzaile bakoitzak **guztira sei argazki digital** igorri ahal izango ditu. Beste aurreko urte batean lehiaketa honetan sarituak izan direnak ez dira onartuko.
4. Argazkiak entregatzeko azken eguna **Urriak 31a** izango da, eta epaimahaiaren ebazpena, emanaldiaren egunean elkartearen helbidean, Prim kalea 35- Donostia jakingo da.
5. Hiru sari izango dira, oroigarriak eta mendi material formatuko opariak.
6. Partehartzaile bakoitzak sari bakarria eskura dezake.
7. Epaimahai, mendizale, mendi eta kirol argazkilari aditu, elkarteko kide batzuek eta Gipuzkoako Argazkilari Elkartea osatuko dute.
8. Lanak **CLUB VASCO DE CAMPING ELKARTERA**, bidaliko dira. Prim kalea 35, **229 posta helbidea, 20080-DONOSTIA**.
9. Elkartea, aukeratutako argazkiak ezagutzera emateko baimendua egongo da, Errimaia aldizkaria, webgunean eta facebook, urteko egutegian eta elkartearen egoitzan burutuko den erakusketa baten bitartez.
10. Argazkiak, TIF, PDF edo JPG formatuan entregatuko dira, CD/DVD euskarriaren bitartez, 25 Mb pisua eta 300ppp erresoluzio kalitatearekin. Honekin batera, CDaren barruan eta testu formatuko dokumentu batean, autorearen izena, helbidea, telefonoa, posta elektronikoa, argazkiaren titulua eta argazkia non atera den lekua azaldu beharko dira. Bidalitako CDak ez dira bueltatuko. Irudiek ez dute markorik ez gehitutako marjinarik izan behar.
11. CD/DVD euskarriak arreta bereziarekin mantenduko dira eta hauek matxuraren bat jasango balute elkartearen kanpo jarduera betengatik, elkartea, ez da honen erantzule izango, eta beraz, erantzunkizuna ez du beregain hartuko.
12. Oinarri hauetatik kanpo gelditzen den jardunbidea, elkarteak bere irizpide egokiak erabiliz ebatziko du.